



"Borrokan jarraituko dugu Alexandruk hobera egin dezan"

Zornotza - Alexandra Elena Buric Alexandru Ionita gaztearen familiaren bozeramailea da. Orain dela egun batzuk, Bizkaiko Auzitegiak 10etik 20 urtera arteko espetxe zigorrak ezarri zizkien Ionita jipoitzeagaitik epaituriko sei gazteri. Buric bozeramaileak Ionitaren osasun egoeraz, epiaiaz eta zapatuan Zornotza Aretoan egingo den jaialdi benefikoaz berba egin du ANBOTOGaz. • **5**



Landako Gunea musikaz eta elkartasunez betetzeko prest

Durango • Zapatuan 40 Minutu Rock jaialdia egingo dute Durangon. 11:00etatik aurrera, dozena bat musika taldek Landako Gunean atunduriko oholta bietara igoko dute. Su ta Gar, Esne Beltza, Belako, Nevadah, Deskontrol eta DAM talde palestinarra daude musika taldeen artean. • **19**



Oskar Kokak hartuko du Iñaki Totorikaguenaren lekukoa Iurretako alkatez

Iurretza • Iñaki Totorikaguenak 17 urte egin ditu alkate, eta beste zortzi zinegotzi. Oskar Kokak haren lekua hartuko du martxoaren 22an egingo duten ezohiko bilkuran. • **11**

Umeentzat kirol espazio seguruak eraiki guran

Egitasmoa • Martxan da kirol azpiegituretan umeen aurkako biolentzia mota oro prebenitzeko egitasmoa. Gaian aditua den Iñaki Alonso dabil aholkulari lanetan. • **2-3**



izena emon



BATXILERGOA
ATE IREKIAK

Martxoak 6 asteartea

18:00etan

946810058

www.maristak.com



**Iñaki Alonso
Romero**

Kunia Sport and
Education-eko zuzendaria

BARAKALDO | 1974

“Ikusten ez den biolentzia da umeen kirol esparruko biolentzia motarik arriskutsuena eta konplexuena”

Umeek kirol esparruetan jasan ditzaketen biolentzia motak prebenitzeko nahiz biolentzia horien aurrean zelan jokatu jakiteko egitasmoa hasi du Durangoko Udalak. Esparru horretan aditua den Iñaki Alonso proiektuko aholkularia izango da

ELKARRIZKETA • JOSEBA DERTEANO

Iñaki Alonso futbol jokalaria eta entrenatzailea izan zen eta ondo ezagutzen du kirol mundua barrutik. Gaur egun mundu horri lotuta jarraitzen du, baina beste modu batera: umeentzat kirol eremu seguruak sortzeko lanean dabil, Kunina Sports and Education enpresaren bitartez. Iazko urte amaieratik, umeen kontrako biolentziaren prebentziorako Europako Kontseiluko adituen taldeko partaidea ere bada. Durangoko egitasmoak hamar hilabeteko iraupena izango du eta Alonso aholkularia izango da.

Zeintzuk dira egitasmo honen aurrekariak?

2021ean, haurrak eta nerabeak biolentzia mota oroien kontra babesten dituen lege organikoa onartu zuten, eta kirol munduari ere eragiten dio. Hauxe da kontua: federazioak edo klub profesionalak ez direnak, hau da, klub edo herri txikiak, erantzukizun honetatik urrunago sentitu daitezke. Baina errealitatea da denentzat dituela inplikazioak. Azken batean, udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakundeak. Ikuspuntu horretatik begi bat gai honetan ipini behar da, eta horixe da egitasmo honen helburua. Herriko agente edo entitateentzat atea zabalik duen egitasmoa da. Ildo horretatik, zoragarria litzateke herriko kirol

elkarte guztiek parte hartuko balute.

Kirol munduko esparru guztietara heldu gura duen egitasmoa da?

Bai. Udalek hainbat bidetatik dute hartu-emanen kirolagaz eta kirola praktikatzeko dutenekin. Esaterako, kirol azpiegituren bitartez: igerilekua, udal eskolak, kirol instalakuntzak, gimnasioa... Bai, gimnasioa ere bai. "Baina umeak ez dira gimnasia joaten", esan zidaten aurreko batean. Bai, joaten dira, eta 18 urtera arte adintxikikoak dira. Hartu-emanen beste hanka bat kirol elkarteak dira, sarritan udaleko azpiegiturak erabiltzen, diru laguntzak jasotzen eta lankidetzaz hitzarmenak sinatzen dituztelako.

Durangon mugimendu handia dago eremu horretan.

Gatz da zer den biolentzia eta zer ez bereiztea?

Lehenengo eta behin, biolentzia zer den definitu behar genuke. Normalean, kirol esparruko biolentziari buruz gabiltzanean, burura etortzen zaigun lehenengo irudia borrokarena edo liskarrena da; hau da, eraso fisiko bat. Hemen umeek euren artean izaten dituztenak ere sartzen dira, jakina. Burura etortzen den beste ohiko irudi bat eraso sexualarena da. Baina eraso fisikotik kanpoko biolentzia motak ere badaude: biolentzia portaera jakin bat ere izan daiteke, eta ume bati adierazteko duen askatasuna mugatzea ere biolentzia izan daiteke.

Hau da, biolentzia mota guztiak ez dira hain agerikoak.

Hori da. Adibide batez azalduko dizut. Ni futbolaria izana naiz, atzelari postuan. Defentsa lanetan errazagoa zitzaidan aurretik zeterrena zaintzea. Horregaitik, aurrelariak atzelariei bizkarra hartzen ahalegintzen ziren, lana zailtzeko. Aurretik datorrena ikustea erraza da. Atzetik datorrena, oster, ez da ikusten eta arriskuaz abisatuko dizun taldekideren bat behar du-

zu. Umeen kontrako biolentzian antzekoa gertatzen da: biolentzia mota bat ikusi egiten da, agerikoa da, baina benetan arriskutsua dena ikusten ez den biolentzia da. Ikusten den arte inork ere ez duelako neurririk hartzen. Horregaitik, berriro diot, ikusten ez den biolentzia da umeen kirol esparruko biolentzia motarik arriskutsuena eta konplexuena.

Biolentzia portaera bat izan daiteke, eta ume bati adierazteko duen askatasuna mugatzea ere biolentzia izan daiteke

Ezkutukoak diren biolentzia moten barruan, normalizatuak dauden biolentziak aipatu izan dituzu.

Kirol praktikan normalizat jotzen diren jarrerak dira, normalizatuak daudenak. Esaterako, irainak, umeak korrika gehiago egin dezan edo beste arrazoiren bategaitik. Baina jarrera horiek normalizatuak daudenez, gauza bi gertatzen dira. Batetik, umeak berak pentsatuko du biolentzia hori kirol praktika-ren parte dela. Bestetik, iraintzen dabilen hori ez da ohartzen egiten dabilenez, errealitatea modu horretara bakarrik ulertzen dutelako. Horregaitik, nik beti diot, inor gurutziltzatu aurretik, bestearen errealitatea ulertzeko ariketa egin behar dela. Begira, lehenengo egun batean batek esan zidan: "Nik 32 urte daramatzat entrenatzen, eta badakit jendea zelan tratatu, ez dut inoren esplikaziorik behar". Entrenatzen urte asko eramateak ez du esan gura ondo dabilenik. Beraz, pertsona horrek kontzientze izan behar du zelan lan egiten duen eta zelan hobetu dezakeen egiten duena. Ni ere entrenatzailea izan naiz eta uste dut denok zeharkatu dugula inoiz marra gorria une konkreturen batean; gaiztakeriarik barik, inori errespetua galtzeko edo minik emateko nahirik barik, baina gauzak beste era batera esan zenitzakeen momenturen batean. Baina gakoa konturatzean dago, egindakoaz kontziente izatean.

Lehiak, irabazteko grinak, gain hartzen dio gizatasunari batzuetan?

Lehia kirolaren parte da. Ondo eramanda, erreminta ona da pertsona nahiz kirolari legez hazteko. Baina batzuetan begirada lausotzen du. Jende bat eskola zaharreko entrenamendu motetan iltzatuta geratu da. Exijitzeko eta ume bakoitzaren onena ateratzen ahalegintzeko momentuak egon daitezke, baina denboraren %90 beste era batekoa izan behar litzateke: poztasunez

eta lasaitasunez entrenatzea, gura dutena adierazteko espazioak eskaintzea... Exijentzia eta tratua ona guztiz bateragarriak dira. Pertsona bakoitza mundu bat da, eta bakoitzak bere nortasuna eta gauzak adierazteko moduak ditu. Baina hori horrela izanda, galdera batzuk egin behar dizkiogu geure buruari: kontziente gara gure izateko moduak izan ditzakeen inplikazioez? Badakigu exigentziaren eta mespretxuaren artean bereizten? Motibatze nahiaren eta irainaren artean?

Zelan landuko da kontzientzia?

Programak hiru elementu nagusi ditu. Lehenengoa herriko kirol ekosistemaren errealitatea aztertzea da: zenbat klub dauden, zenbat ume dabilzan, kontrataturiko profesionalak... Horrek egoeraren argazki orokor bat emango digu. Horren ondoren, lan indibidualizatua dator: elkarrizketak eta lanketa partekatua herriko kirol erakundeekin. Hurrengo pausoa tailerrak antolatzea da, kolektiboki lan egiteko. Ezabatu nahiz sustatu behar diren elementuak eta jarrerak denon artean aztertuko dira. Azken egitekoa protokoloak lantzea da. Azkenean, hauxe lortu gura da: kirol praktika ingurartzen duten agente guztiek behar denean eskua altxatzea eta isilik ez geratzea. Esaterako, umeen partiduetan. Eskua altxatu eta,

esaterako, salatu dezala: "Barkatu, guraso haiek partidu honetan erakusten dabilzan jarrera ez da egokia". Edo: "Aizu, giro sano batean lehiatzeko, elementu hauek behar dira, eta, ez badaude, ez dugu jokatu". Azken batean, umeak tarteko dauden kirol ekintzetan lanean dabilzan profesionalak obligazio morala dute edozein jarrera biolento, susmo bat bada ere, salatze; baina ez morala bakarrik, legala ere bai, lege organikoak bere artikulua batean zehazten duen moduan.

Protokoloak aipatu dituzu. Biolentzia kasu bat identifikatu ondoren aktikatu beharreko protokoloak zeintzuk ezaugarri izan behar ditu?

Protokoloen masifikazioa dagoen gizarte batean bizi gara eta, sarritan, osotasunagaz nahasten dira. Protokoloa ez da babeserako marko orokorra, ezta tratua oneko giro bat bilatzeko oinarritzko elementua ere. Marko orokor baten barruko erreminta bat gehiago da. Protokolo bat izateak ez du esan gura dena duzunik; are gehiago, protokoloak izateak bakarrik ez du inor babesten. Estatuan izan dira biolentzia kasuak, batzuetan larriak, eta entitate horiek bazuten protokoloa. Protokoloak ez du ezertarako ere balio kaxoi batean sartuta badago. Ildo horretatik, inportantea da protokoloa laburra eta zehatza izatea. Sinplifikatzeak



Iñaki Alonso, eta Durangoko Udaleko eta hainbat kirol klubetako ordezkariak, egitasmoaren aurkezpenean.

ez du esan gura sinesgarritasuna galtzen denik, kontrakoa baino: efikazia irabaztea esan gura du.

Durangoko klubak zelan daude biolentzia prebenitzeko lanketari dago-kionez?

Oraindino ez dut erradiografia orokorra, horretan nabil. Badakit, esaterako, Tabirako saskibalo kluba sentsibilitate bereziagaz dabilena lanean. Seguru nago beste klub batzuek ere lanketa bat egingo zutena, bakoitzak bere neurrian. Beste batzuek, ostera, ez dute ezer izango. Nik mezu hau bidali gura

du: ez da ezer gertatzen ezer ez edukitzearen. Ezer egin gura ez izatea, hori bai bada lotsagarria, baina egiteko borondatea duenak ez du lotsarik izan behar. Eta esango nuke egitasmo honetako baliabideak egokiak direla bide horri ekiteko.

Beste herri batzuetako egitasmoetan aritu zara. Balorazioa positiboa da?

Bai. Klubek eta pertsonak esker-erak eman dizkigute gaia modu eraikitzailean hurreratzegaitik. Izan ere, batzuetan beldurra izaten dute. Gogoan dut klub baten

zuten beldurra: umeen babeserako neurriak lantzen bazituzten, jendeak pentsatu zezakeen zeozer gertatu zela. Oraindino existitzen da mentalitate hori. Bigarren alde positiboa gai honi eman zaion ikusgarritasuna da. Azkenik, egitasmo hauei eskerrak, politika publikoren bat edo beste sortu dela da hirugarren elementu positiboa. Esaterako, diru laguntzak banatzeko oinarrietan, gai honi loturiko klausularen bat gehitu duten udalak daude. Astiro bada ere, aurrerapausoak ikusten ditut.

Durangoko Tabirako Saskibalo Kluba dagoeneko martxan ipini du kirol esparruko biolentziaren kontrako protokoloa

lazio irailean hasi ziren lantzen, eta urtariletik dago indarrean. Berau sendotzen jarraitzeko asmoa dute

Durangoko hainbat klub batu da kirol azpiegituretan umeen biolentzia prebenitzeko udalak ekin dion kirol egitasmoa. Batzuentzat lehenengo urratsa da, eta beste batzuek orain arte egini-koari bultzada berri bat emateko eta proiektua gehiago sendotzeko erabiliko dute. Azken multzo horretan dago, esaterako, Tabirako Saskibalo Kluba. Urtarilean, umeentzat espazio seguruak bermatzeko egitasmoa eta horri loturiko protokoloak ipini zituzten martxan.

Kirol esparruko abusuak eta jazarpenak prebenitzeko Tabirako aktibatuta duten protokoloak arduradun bat du: Amaia Frontaura. Tabirakoko jokalaria izandakoa da eta alaba nagusiak ere hantxe jokatzen du gaur egun. Tabirakogaz duen loturagaitik, eta legedia kontuetan jantzita dagoenez —Durangoko udaltzainburua da—, klubeko ordezkariak

beragaz hartu-emanean ipini ziren iazko irail-urrian, proiektuaren ardura berari eskaintzeko. Baiezkoa eman, eta lanean hasi ziren: legedia aztertzen, izapideak egiten, federazioekin hartu-emana izaten... Horrez gainera, inkesta bat banatu zuten entrenatzaileen, jokalarien eta jokalarien gurasoen artean, modu anonimoan erantzun zezaten. Inork biolentzia, jazarpen edo antzerako kasurik bizi zuen jakin gura zuten. "Inork ere ez zuen horrelako kasurik adierazi", gogoratu du Frontaurak.

Protokoloa martxan da urtariletik, eta hark zehazten du biolentzia kasuren baten aurrean zelan jokatu behar den, zeintzuk neurri hartu behar diren eta pertsona kaltetua zelan babestu behar den. Aktibatuta duten protokoloa ez da aldaezina. Atea zabalik dute protokoloa hobetu eta findu dezaketek ekarpen-



Tabirakoko talde guztietako familia argazkia. TIN URKIJIO/LUIS ITURRIOZ.

"Iñakik urte askotako esperientzia du. Bere ikuspegia aberasgarria eta ondo etorria izango da"

tarako. Ildo horretatik, Frontaurari "oso positiboa" iruditzen zaio udalak hasi duen eta aholkulari legez Iñaki Alonso duen egitasmoa. "Iñakik urte askotako esperientzia du. Guretzat, ostera, egitasmo berria da eta

beti jo dezakegu berarengana. Bere ikuspegia aberasgarria eta ondo etorria izango da", azaldu du. Besteak beste, entrenatzaileak eta gainerako arduradunak gaian trebatzen jarraitzeko baliatu dezakete.

Mobidurango kirola txertatzea lortu du 200 bat herritarren egunerokoan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

2023ko balantzeak zenbaki hori utzi du. Mobidurango zerbitzuak kirolaren ikuspuntutik ez-aktiboak ziren 200 bat durangarren bizimodu ohiturak aktibatzea

lortu du. Bertaratuen %80k osakidetzako osasun zerbitzuek gomendatuta jo zuten zerbitzura, medikuak, fisioterapeutak edo buru osasuneko profesionalak halantxik proposatuta. Gainera-

koak Durangoko Adinekoen zerbitzutik, Andragunetik eta Mankomunitateko Zaindu zerbitzutik joan ziren. Dalda Baraiazarra Eusko Jaurlaritzaren Mugiment programako arduradunetarikoa da. Martitzeneko agerraldian azaldu zuenez, "bilaketa lana" da egin behar dutena. "Osasun arloko profesionalekin lan egiten dugunean, patologia dituzten zein ez dituzten herritar ez-aktiboak detektatzen ditugu. Horiek kirol zerbitzuetara deribatzea da gure lana", azaldu zuen. Bide horretan jarraitu gura dute aurrerantzean ere.

Urriarri makina berri batzuk ekarri zituzten Landako II kiroldegira. Ibon Bilbao Mobidurango egitasmoko teknikaria da. Eta, azaldu zuenez, makinetan "hasierako testak" egiten dituzte, ondoren herritarrei "sei hilabeteko ariketa plan indibiduala egin eta sei hilabeteko esku hartzea" egiteko. Mireia Elkororibe alkateak instituzioen arteko elkarlana go-raipatu eta zerbitzuan izena ematera animatu ditu herritarrak.



Udaleko, Landako kiroldegiko eta Mugiment egitasmoko kideak, martitzeneko aurkezpenean.

Larrinagatxu erreka bideratu dute Aramotzen

Auzoa zeharkatu izan duen erreka bideratu dute Aramotzen. Auzoa gurutzatu barik, inguratu egiten du

DURANGO • E.H.

Larrinagatxu erreka bideratu dute beste ibilgu bat du joan zen astetik. Aramotz urbanizazioa zeharkatu barik, inguratu egiten du. Eguenean egin zuten desbideraketa, auzoa eraldatzeko egiten dabilzan obren markoan. Bertan izan ziren Durangoko agintariak eta Aramotz auzo elkarteak kideak. Mireia Elkororibe alkateak adierazi zuenez, desbideraketa "funtsezkoa" da,

horregaz bizilagunen "bizi kalitatea hobetuko delako". Lanek 2.000.000 eurotik gorako inbertsioa izan dute. Udalak, Jaurlaritzak eta Europako Next Generation diru funtsek esku hartu dute jarduketaren horretan. Era berean, auzo elkarteak kideen urteetako ekina aitortu zuen Elkororibek: "Urteak daramatzazue auzoa hobetzea eskatzeko borrokan. Lan handia dago egiteko, baina bide onetik goaz".



Joan zen egunean desbideratu zuten erreka.

Durangoko aurrekontuek Antso Estegiz, Eguzkitza eta Aramotz berriztea dute helburu

DURANGO • E.H.

Durangoko Udalak indarrean sartu ditu 2024ko aurrekontuak. Institutio publikoak 42.577.303 euroko diru poltsa izango du 2024a kudeatzeko, iaz baino %2,47 gehiago. Eguenean eginiko osoko bilkuran, "ongizateari eta herritarren bizi kalitateari" begirako diru partidak "lehenetsi" dituztela azaldu zuen Josune Escota Ogasun zinegotziak. Gobernu taldetik proiektu hauek ipini dituzte helburutzat: adinekoei begirako zerbitzua hobetzea (besteak bes-

te, Astarloa egoitzako igogailua berriztu eta Adinekoen foroa sustatuko dute), Antso Estegiz kalea berrurbanizatzen jarraitzea, Tabirako kirol instalazioetako aldagelak berriztea eta turismoa sustatzea. Ezarritako beste diru ataletako batzuk Aramotz berrizteko proiektuari, migrazio politikei, bide publikoen mantentzeari eta berdintasun politikari lotuta daude. Era berean, Escotak aitortu zuen kontu "austeroak" direla, eta ez dutela "aukera handirik utzi" edukiez erabakitzeke. PPK

gobernu taldearen proposamena babestu zuen: "Gutxigaz asko egin daitekeela erakusteko ahalegina dira aurrekontuok. Gobernu taldea berria da eta aukera bat eman behar zaio".

Bestalde, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak aurrekontuen kontra zeudela adierazi zuten, "arlo sozialean murrizketak" daudela iritzita. "Ongizatea bultzatu gura duguela diozue, baina ahaztu egin zaizue ume eta gazteei begirako, gazteen emantzipaziorako, Plate-ruenerako, kirol eta kultur arloei



Aurrekontuak onartzeko osoko bilkura egunean egin zuten.

begirako diru atalak gutxitu egin direla", kritikatu zuen EH Bilduko Iker Urkizak. Herriaren Eskubideko Jorge Varelak ere kritikoa berba egin zuen: "Aurrekontua

hiru milioi euro igo den arren, murrizketak daude arlo sozialean. Hala nola hezkuntzan, kulturean, kirolean, ingurumenean eta berdintasunean".

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko otsailaren 23a
22. urtea - 969. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01

ISSN:
1578-7028

Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia

Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.

Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga eta Nahia Coello.

Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Itxaropen handia dugu Alexandruren bilakaeran; hobekuntzak lortzeko borrokan jarraituko dugu”

Alexandra Elena Buric Alexandru Ionita gaztearen familiaren bozeramailea da. Ionitaren egoerari, Bizkaiko Auzitegiaren epaiari eta zapatuan Zornotzan egitekoa den jaialdi solidarioari buruz berba egin du

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Bizkaiko Auzitegiak 10etik 20 urtera arteko espetxe zigorrak ezarri dizkie Alexandru Ionita gazteari emaniko jipoiaz egaituriko sei gazteri. Auzitegiak "hilketa saiakera" eta "talde kriminal baten parte izatea" egotzi zien eurretari bosti, eta delitu horien "konplize" izatea seigarrenari, laguntzarik eskatu ez zuelako. Bestalde, zapatu honetan Ionitaren aldeko kontzertu solidarioa egingo dute Zornotza Aretoan. ANBOTOK Alexandra Elena Buric elkarrizketatu du, gaztearen familiaren bozeramailea.

Zelan dago Alexandru?

Egoeraren larritasuna kontuan hartuta, apur bat hobeto dago. Medikuek ez zuten ezelako esperantzarik. Jipoiak jaso berritan astebeteko bizi itxaropena eman zioten, eta hara, ia hiru urte daratzaz honeguz. Aurrerapen bat egitea lortu du. Gorlizko ospitalean egon zen urte eta erdian. Gaur egun, Bilboko etxe batean dago, eta tarteka Bartzelonako klinika batera eramaten dute, errehabilitazio lanak han egiteko. Hango medikuentzat erronka da Alex artatzea. Berearen moduko kasuekin lan egiten dute, eta, egia esan, kariño handia hartu diote. Egundoko esfortzua egiten dute berari laguntzeko. Hile eta erdiko errehabilitazio lanaren ondoren, ahotik jaten du, zunda kendu diote, berba batzuk egiten ditu, eta ura eskatzen dizu. Niri, adibidez, izenetik deitzen dit. Ezkerreko aldean, egundoko indarra du beso-hanketan. Barrutik, baina, ume bat da. Ingurukoak ezagutzen gaitu: ama, aita, anaia, ni, abokatuak. Baina ez dakigu iragana oroitzen ote duen.

Zein izango da hurrengo pausoa?

Protesi bat ipiniko diote burezur-reko alde batean, eskumaldean. Ebakuntza horren zain dago. Gurutzetako ospitalean egingo diote. Kontua da orain ia hiru urte eman zioten jipoian burezurra hautsi ziotela, eta horren ondorioz burua deformatzen joan zaiola. Orain aprobak egin behar dizkiote, anestesistagaz-eta. Medikuek dioskue bere egoera gehiago hobetu daitekeela titaniozko

protesia ipinirikoan, nahiz eta argi dioskuen sekula ere ez dela lehengoratuko. Hala ere, itxaropen handia dugu Alexandruren bilakaeran, eta hobekuntzak lortzea gatz izango den arren borrokan jarraituko dugu. Ama bere ondoan dago etengabe, egun eta gau. Txarto pasatzen dabilen arren, ez du etsitzen.

Bizkaiko Auzitegiak joan zen astean kaleratu zuen adinez nagusi diren sei gazteren kontrako epaia. Zein da zuen balorazioa?

Tira, gutxienez urte apur batzuetarako kondenak jaso dituzte. Ama beldurtuta zegoen epaia kaleratu aurreko egunetan. Zigorrik egon ezean, Alexandrugaz Errumaniara bueltatuko zela zeukan erabakita. Beldur die erasotzaileei, eta nahi-non ikusten ditu. Kaletik jarraitzen dioten sentsazioa du, bakean utziko ez duten sentsazioa, eta Alexi berriro ere

“Ea jende asko datorren Zornotza Aretoan. Batzen dugun guztia Alexandruren errehabilitaziorako izango da”

min egingo diotela. Izututa dago. Adinez nagusi diren erasotzaileek jaso zezaketen kondenarik handiena jaso dute, behintzat. Adin txikikoak diren erasotzaileekin, baina, kontua bestelakoa da.

Izan ere, joan zen asteko epaiak 10etik 20 urtera arteko kartzela zigorra ezarri die adinez nagusi diren sei gazteri. Baina iaz adin txikiko zortzi gazte epaitu zituzten.

Bai. Adin txikikoak den gazteetari-ko bat zentro batean dago egunez, eta etxean gauez. Gainerakoak auzitegira joatera daude derri-gortuta, sinatzera. Baina ez dago eurretari baten berririk.

Berriro ere egin dute halakorik?

Bai. Badirudi Zornotzan gertaturikoak kemen moduko bat eman diela erasotzaileei. Koala Anaiak famatu egin dira, telebistan irten dute eta auzitegiak ezarri diena zigor handia ez denez, bada, lehen-



go lepotik burua jarraitzen dute. Antzera bateko banda ugari dago Bilbon eta Espainiako estatuan.

Izan duzue kontakturik erasotzaileekin? Haien senitartekoekin?

Gurasoekin ez. Adinez txikikoak zirenen epaiketan, auzipetuekin eurekin bai, izan genuen hartu-eman, eurretari denekin. Auzitegiko itxarongelan eta kanpoaldean ikusi genituen. Alexandruren ama behea jota zegoen. Auzitegitik irten genuenean, eurretari bat korrika etorri zen gugana. Han nengoen ni, Alexandruren aitagaz eta amagaz. Gazte hark barkamena eskatu gura zuen, modu batera ala bestera. Baina gazte hura ikusitakoan, ama guztiz izutu zen. Zergaitik egin zuen galdetu zion etengabe gazteari, harik eta amak konortea galdu zuen arte. Bestalde, Alexandruren gurasoek oraindik ez dute ikusi gazteek jipoi eman bitartean grabaturiko bideoa. Telebistan ikusi izan dute irudiren bat, gura barik. Lurrean zegoela, Hil ezazu! Hil ezazu! oihukatu eta ostu egin zioten.

Epaiaz fase bat amaitu da familiarentzat?

Bai. Amak horixe gura zuen. Auzia behingoz amaitu eta Alexandru buru-belarri zaintzea. Horixe baino ez du gura, eta ahalik eta ondoen hobetzea.

Zapatuan kontzertu solidario bat egingo duzue Zornotza Aretoan Alexandruren alde.

Bai, 18:30ean izango da. Bilboko Gospel taldeak kontzertua eman- go du. Haien eskaini zuten euren burua kontzertua egiteko. Iaz Alexandruri laguntzeko antolatu genuen jaialdian ez zuten parte hartzerik izan, baina aurten bai. Zornotzako Udalak bitartekari- tza lanekin lagundu digu. Ea jende asko datorren eta Zornotza Aretoa betetzen dugun. Batzen dugun baliabide ekonomiko oro Alexandruren errehabilitaziora- ko izango da.

Urte eta hile hauetan guztietan zelakoa izan da Zornotzako herritarrek emaniko babesa?

Asko lagundu digute, izugarri. Iruditzen zait gertatu zenak herritar guztiak hunkitu zituela.

Herritarrek, prentsa, osasun langileak,... denek agertu dute babesa. Kasu hau hain da beldur- garria, hain egin da ezaguna..., jendeak egundoko babesa eman diola familiari.

Alexandruri egin ziotenak zein haus- narketa gizarteratu beharko lukeela uste duzu?

Gogoeta ekarri beharko luke, bai. Nik lehen lasai irteten nuen kale- ra, ez nuen beldurrik, eta ez nuen atzera begiratzen. Orain, ostera, atzetik baten bat datorrela igar- tzen dudanean, begiratu egiten dut. Gaur bada, autoa aparkatu eta arinetan joaten naiz etxera. Denerik dago. Badago bihotz one- ko jendea, eskuzabala. Horiek ere ezagutu ditugu, zorionez. Baina badago frustrazioak jota bizi den jende bat ere. Horrelako gertaer- rik berriro inon ere ez izatea gura dugu. Baten bati mina eragin aurretik, hamar bider pentsatu behar da. Ez zuten Alexandruren bizitza bakarrik izorratu. Ama- rena, aitarena, anaiarena, osa- ba-izebena... mundu guztiarena izorratu dute.

Jende berria batuta eta kontzertuak jotzen hasita, Otxandioko Udal Bandak biziberritzea lortu du 2018tik hona

Kide kopurua bederatzitik hamabostera igo da eta eurerariko hainbat 12 urtera artekoak dira; otsail hasierako kontzertuan bete egin zuten Santa Marina eliza

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udal Banda biziberritu egin da. Jende berria batu da taldera, tartean hainbat gaztetxo. Gainera, 2021etik hona kontzertuak jotzen hasi dira eta oso harrera ona izan dute. Otsail hasieran Santa Marina elizan emaniko kontzertura jende asko joan zen. Horiek horrela, etorkizunari itxaropentsu begiratzeko diote.

Bandak tradizio luzea du. Hiru mende ezagutu ditu, modu batera edo bestera. Esaterako, Aingeru Berguices musikari eta ikertzaileak (Bilbo, 1957-Galdakoa, 2022) 2016an aurkezturiko doktore tesi batean, Otxandioko Udal Bandaren XIX. mendeko erreferentzia bat baino gehiago ageri da; besteak beste, 1856an Urkiolako erromerian parte hartu zueneko. Harrezkero, oparotasunean batzuetan eta gerrikoa estututa besteetan, musikari eta zuzendari askok luzaroan eginiko lan handiari eskerrak heldu da gaur egunera. Azken loraldia Kepa Pinedo musika zuzendari eta irakasle gasteiztarraren gidaritzapean heldu da. Carmelo Bernaola konpositore handiaren (Otxandio, 1929-2002) ikasle izandakoari 2017an eskaini zioten bandaren zuzendaritza hartzea, aurretik zegoena jubilatuz zenetik zuzendaririk barik zeuden eta. Urte hartan Otxandion hasitako Korrikaren harira antolatutako kontzertua zuzendu ondoren egin zioten eskaintza. "Baietz esan nuen, oso pozik gainera", gogoratu du Pinedok. Orduan, udal bandak bederatzitik musikari zituen eta apurka-apurka jende berria batzen joan

zen. Gaur egun 15 bat kidek osatzen dute Otxandioko Udal Banda, eta gustura dabilta.

Hainbat ume

Kide batzuk gazte-gazteak dira. Zelan batu ziren hauek taldera? Sorburua Otxandioko Udalak Arratiako Musika Eskolagaz duen hitzarmenean dago. Horri eskerrak, herrian bertan askotariko musika-tresnak jotzen ikasteko aukera zabaldu zen, eta hainbat umek eman zuen izena. Ondoren, 2021ean, udal bandagaz entseuetara joaten hasi ziren. Gaur egun, 9tik 12 urtera arteko bost gaztetxo dituzte: tronpetari bi, saxofonista altu eta klarinetista bana, eta perkusionista bat. 16 urteko klarinetista bat ere badabil.

Kontzertu propioak

Urtean zehar, herriko ekintza askotan parte hartzen dute: inauterietako desfilean, Santamaña jailetan, musikaren egunean, Gabon gauean... Jai giroa non, Otxandioko Udal Banda han. 2021ean, bandaren ibilbidean pauso inportante bat eman zuten, kontzertuak jotzen hasita. Urtean bat edo bi antolatzen dituzte. Azkena otsail hasieran izan zen, Santa Marina elizan. "Jende asko batu zen eta pozik gaude", dio Pinedok.

Errepertorioan ere igarri daiteke Pinedoren eragina. Batetik, tradizioa eusteari "inportantea" deritzo. "Otxandion historia luzea dugu eta zaindu behar dugun ondarea da", azpimarratu du. Baina, bestetik, garaikideagoa den musikari ere egiten diote tokia,



Otxandioko Udal Bandako kideak otsailean Santa Martina elizan emandako kontzertuan.



Orain 25 bat urteko musika bandako kideen argazkia.

hala nola rock and roll eta jazz doinuei. "Carmelo Bernaolak musika garaikidea egiten zuen eta betidanik gustatu zait. Gainera, ikus-entzuleek eskertu egiten dute

horrelako sorpresatxoak", dio. Esaterako, Bryam Adams-en *Everything I do, I do it for you* abestia jo zuten otsaileko kontzertuan. Atea zabalik dute kide berrientzat. Pinedok

unean-uneke taldekide kopurura moldatzen du musika. "Partiturak apur bat moldatuta lortzen da taldea orekatzea. Ez da arazo handia", argitu du.

Udalak Mañariko Arrueta auzoko bihurgune bat leundu du

MAÑARIA • J.D.

Udalak Mañariko Arrueta auzoko bihurgune bat leundu du. Iazko azaroan hasi zituzten lanak, eta aurtengo urte hasieran amaitu dituzte. Urre enpresak egin ditu. Pinadiak botatzen direnean, kamioien joan-etorria handia da bide horretan, eta bihurgune horretan ez zegoen bisibilitate handirik. Bihurgunea leunduta, han dabilta ibilgailuen segurtasuna handitu gura izan dute. Lanek 39.000 euroko inbertsioa izan dute.



Arrueta auzoko bihurgunea.

Izurtzan klown ikastaroa emango dute martxoko eta apirileko martitzenetan

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Korralla Sormen Gunean klown ikastaroa egingo dute martxoko eta apirileko martitzenetan, 18:30etik 20:30era. "Irrigarrikeriak arte, komedia eta inprobisazio bihurtzen ikasiko dugu", azaldu du Cecilia Paganini irakasleak. Ikastaroaren kostua 100 euro da. Euskal Zirku Elkarteko bazkideek eta Korralla ikasle ohiek %10eko deskontua izango dute. Izurtzako eta Mañariko bizilagunentzat ere deskontuak egongo dira. Izen ematea korralla@ganso.info emailen egin daiteke.



Iazko udazkenean emaniko klown ikastaroko une bat.

Osasun gida

 **Podologia**
PSE: 214/06


Podinara Urreta Jainaga
OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK
Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**
PSE: 162/13

NAIA ZABALA AUZMENDI
11587 kol. zk.

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
• ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA
Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

prōktós.clinic
Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua
Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia (MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktos.clinic

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13


ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia
Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.
Trañabarren 13, 4. blokea behe eskuma MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16


pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia
Muruetatorre, 2D DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13


clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria
ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA • ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA • ODONTOPIEDIATRIA • PADI • HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)
{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hartz klinika Durangon
DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.
Orduetgia:
Asteleheneretik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta
944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com





Lasterketaren aurreko edizio bateko argazkia.

Laguntza bonuak eskuragai, Lasterbideani babesa emateko

Lasterbideaneko antolatzaileek bertso saioa eta bakarriketak antolatu dituzte. Martxoan eta apirilean izango dira

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Lasterbidean egitasmoak, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenak, Abadiñon lur hartuko du ekainaren 14an eta 15ean. Ekimen horri babesa emateko, hainbat ekintza antolatzen dabilta Abadiñon, eta baita Durangaldean ere. Esaterako, "euskal errepresaliatuen aldeko" egitasmoa sustatzeko, laguntza bonuak

kaleratu dituzte. Bonu hauek 10 euroko balioa dute eta Abadiñoko Abarkateruenean eta eskualdeko beste hainbat puntutan eskuratu daitezke.

Bonu hauek erosten dituztenek abantailak izango dituztela jakinarazi dute ekimeneko antolatzaileek. Esaterako, Lasterbidean egitasmoaren barruan bertso saioa egingo dute martxoaren 16an,

Errota Kultur Etxean, eta apirilaren 19an bakarriketa saioa Probalekuan. Bonua erosten dutenek lehentasuna izango dute hitzordu horietarako, eurak trukatu. Bonuak behin bakarrik trukatu ahal izango dira, herriko Mediatekan.

Bonuak eskuratzen dituztenek abantailak izango dituzte bertso saiorako eta bakarriketarako

Motorrak berotzeko antolaturiko lehenengo ekimena martxoaren 16an izango da, bertso saioa. 20:00etan izango da, Errota Kultur Etxean, eta Amets Arzallus, Oihana Bartra, Erika Lagoma, Susirai Colina eta Bittor Altube bertsolariak arituko dira kantuan bertan. Itxaro Juaristi izango dute gai jartzaile. Saio honetarako bonuak dagoeneko trukatu daitezke. Bonurik ez daukanak martxoaren 6tik aurrera erosi ahal izango du sarrera, Errotan zein Mediatekan.

Bakarriketa saioa apirilaren 19an izango da, 19:30ean. Hauek izango dira umoregileak: Ana Goitia, Mirari Martiarena eta Ion Martinez "Txiki". Saio honetarako bonuak ere trukatu daitezke dagoeneko, eta sarrerak otsailaren 23tik aurrera eskuratu ahal dira.

Bestalde, antolatzaileek jakinarazi dute eskualderako ere prestatzen dabilta egitaraua. Hainbat ekimen egongo da Mañarian, Durangon, Iurretan, Atxondon, Zaldibarren eta Zornotzan.

Gerra zibileko hiru lehergailu neutralizatu dituzte Saibigainen

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek hiru lehergailu topatu dituzte: obus bat eta eskuko granada bi



ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Miaketa bat egiten zebiltzala, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek hiru lehergailu topatu zituzten Saibigainen joan zen zapatuan: obus bat eta eskuko granada bi. Itxura guztien arabera, gerra zibilekoak. Ertzaintzak 15:00etan jaso zuen aurkikuntzaren abisua, eta Lehergailuak Indargabetzeko Unitateko agenteak Saibigainera joan ziren lehergailuak indargabetzera. Han bertan ezandarazi zituzten, modu kontrolatuan. Obusa 75 milimetroko artilleria jaurtigaia zen. Eskuko granadak 31 modelokoak ziren, edo poloniarrak.

Hile honen hasieran gudulari baten arrastoak topatu zituzten Saibigaineko tontoretik gertu

Frankistek Bilbo hartu aurreko egunetan borroka inportanteak egon ziren Saibigainen, Eusko Gudarestearn eta tropa frankisten artean. Ez da Abadiñoko eta Mañaria arteko mendi inguru horietan gerra zibileko arrastoak agertzen diren lehenengo aldia. Urrutira joan barik, hile honen hasieran bertan, gudulari baten arrastoak topatu zituzten tontoretik gertu.

Elorriko diru laguntzak onartu dituzte gizarte-bazterkeria edo arriskua bizi dutenentzat

Eusko Jaurlaritzak eta Durangaldeko Mankomunitateak ematen dituzte mota honetako laguntzak. Baina Elorriko Udalak 7.000 euroko diru partida onartu du

ELORRIO • AITOR RUIZ

Elorriko Udalak 7.000 euro ipiniko ditu gizarte-bazterkerian edo arriskuan dauden pertsonentzat. Mota honetako baliabideak Eusko Jaurlaritzaren esku daude eta Durangaldeko Mankomunitateak kudeatzen ditu. Eusko Jaurlaritzako laguntzak nahikoa izango ez direlakoan, Elorriko Udalak aurrekontuen zati bat laguntza horietarako bideratzen du urtero. Aurten, 7.000 euroko kreditua dago guztira, eta eskabide-orrria udaletxean, Herriarren Arretarako Zerbitzuan edo modu telematikoan aurkeztu daiteke. Diru laguntza jasotzeko informazioa eta orientazioa Gizarte Zerbitzuek emango dute, aurretik hitzordua eskatuta.



Elorriko Erreka kalea.

Elorriko Udalak azken asteetako pintada matxistak gaitzetsi ditu

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Udaletik jakinarazi dutenez, konnotazio matxistak dituzten pintadak agertu dira herrian azken asteetan. Udalbatza osatzen duten hiru alderdi politikoek pintada hauek gaitzetsi dituzte. "Terminologia matxista edozein pertsona publiko iraintzeko, beldurtzeko eta bere ohorea zikintzeko bitarteko gisa erabiltzea konnotazio matxistak dituen indarkeria mota bat da, eta, horri aurre egiteko, prest gaude beharrezko baliabideak ipintzeko", azaldu dute udaletik. Hori horrela, beharrezko neurriak aztertzen dabilta jakinarazi zuten, neurri juridiko eta sozialak.

'Erresistentzia arazo fisikoa da' ikuskizuna egingo dute gaur Arrazolan, Amillenan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Plazerkekeriak kultur zikloaren barruan, Maite Aizpurua Olaizolak *Erresistentzia arazo fisikoa da* ikuskizuna egingo du gaur, otsailak 23, Arrazolan. Amillena Arrazola auzoko Bentan izango da ekitaldia, 20:30ean.

Gaurkoa Plazerkekeriak kultur zikloaren barruan antolaturiko bigarren ekimena izango da. Amillenko arduradunek urtarrean ipini zuten martxan ziklo hau, emakume eta identitate disidentedun sortzaileen plaza kulturala sortzeko asmoz. Hori horrela, ekainera bitartean, hilero ekimen bat egingo dute Amillenan.

Oraindik ez zara ANBOTOko whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali 'ALTA'

688 635 041

telefono zenbakira


* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto



Anbotokideen txokoa

OTSAILEKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.



Baginaren bakarrizketak ikuskizunerako sarrera bikoitza. Martxoaren 9an Berrizko Kultur Etxean.



Aitzindariak antzerkirako sarrera bikoitza. Martxoaren 9an, Arriolan.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

- Eguneko menua Basaren eskutik: Patricia Unzalu Sustatxa

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



Asier Mochales eta Irune Prada.

"Gaur egun Gaztetxeak aisialdi alternatibo bat proposatzen du"

Gaztetxeko kideek egitarau zabala antolatu dute urteurrena ospatzeko. Urteurren jaia martxoaren 9an izango da

ZALDIBAR • AITOR RUIZ

Zaldibarko gaztetxeak 20. urteurrena ospatuko du martxoaren 9an. Irune Prada eta Asier Mochales gaztetxearen historiaren parte dira eta 20 urtean egindakoa azaldu dute.

Zelan sortu zen gaztetxea?

Asier Mochales: Hasieran, okupatutako katuete gaztetxea egon zen. Eraikina oso txarto zegoen eta udalak eta jabeak etxeak egin gura zituzten lursail horretan. Jabeak salaketak ipini zituen eta identifikazioak eta multak egon ziren. 2001 eta 2003 artean udalagaz negoziazioak egon ziren lokal bat uzteko. Gure exijentzia bakarra autogestioa mantentzea izan zen, baldintzarik eta ordutegirik barik. Eskatzen genuena onartu zuten eta 2003ko irailean sartu ginen hona.

Zer helburu eta zer berezitasun ditu gaztetxeak?

Irune Prada: Nire ustez, berezitasunik handiena da herrian dagoen gazteen elkargune bakarrenetarikoa dela. Gainera, jende gaztea eta ez hain gaztea biltzen ditu, eta urtean zehar hainbat ekintza egiten da.

20 urte hauetan, zelakoa izan da gazteen inplikazioa?

A.M.: Lehen jende gehiago batzen zen gazteetxeetan, eta bileretan ere jende gehiagok parte hartzen zuen. Horrez gainera, gazteria sakabanatu egin dela uste dut; batzuk gaztetxeagaz konprometituta daude, eta beste batzuk, ostera, euren gauzeekin daude eta gutxiago parte hartzen dute.

I.P.: Ados nago Asierrek esan duenagaz, baina Zaldibarren ekintzak antolatzen ditugunean, herriaren

eta gazteen parte hartzea igartzen da. Orokorrean, bileretan igartzen da beherakada.

Herrian zer eragin izan du orain arte eta zer eragin du gaur egun?

A.M.: Gaztetxera etorri baino lehenago, askok ez genuen elkar ezagutzen. Hainbat kuadrilla geunden, eta katuete egon ginenean eta hona etorri ginenean, kuadrillak batzen hasi ginen. Bestalde, gure garaian, kontzertuak, antzerkiak eta hainbat motatako tailerrak antolatzen genituen, eta txosnagunea sustatu genuen. San Andres jaiak hiltzeko zorian zeuden eta geuk indartu genituen; orain oso garrantzitsuak dira.

I.P.: Proiektu desberdinak sustatu dira gaztetxetik, 2015ean *Barrura*, adibidez. Etxebizitzen ildoan lantzen zuen eta martxan izan zen denbora batez. Gaur egun, gaztetxeak aisialdi alternatibo bat proposatzen du eta herrian eskaintza kulturalak antolatuta ditugu.

ETSk astebururako iragarritako errepide mozketa bertan behera utzi dute eguraldi txarragaitik

N-634 errepidea moztu gura zuten pasabidea eraikitzeko



ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Zaldibarko trenbide pasagunea kentzeko eta geltokia eraberritzeko Eusko Trenbide Sareakek (ETS) duen proiektuaren barruan, hurrengo lanek eragina izango dute N-634 errepidearen ohiko funtzionamenduan. Hala ere, lan horiek atzeratzea erabaki dute. Izan ere, trenbidearen eta errepidearen gaineko pasabideak ipintzeko, N-634 errepidea itxi gura zuten Zaldibar parean hurrengo asteburu bietan. Atzo, ETSk bertan behera utzi zuen astebururako errepide mozketa, iragarrita dagoen eguraldi txarragaitik. Oraindino ez dituzte errepide mozketen data berriak erabaki.

Oskar Kokak hartuko du Iñaki Totorikaguenaren lekukoa Iurretako alkatetzan

Totorikaguenak 17 urte egin ditu alkate karguan



Oskar Koka eta Iñaki Totorikaguena.

IURRETA • E.H./M.Z.

Iurretako EAJk jakinarazi duenez, Iñaki Totorikaguenak, Iurretako alkateak, kargua utziko du 17 urtean herriko udalaren buru egon ondoren. Oskar Koka iurretarrak hartuko du alkatearen lekukoa martxoaren 22an egingo den ezohiko osoko bilkuran. Oharrean jakinarazi duenez, Totorikaguenak erabakia honela azaldu du: "Ibilbide guztiek amaiera bat dute, edo gutxienez puntu eta aparte bat. Eta nik pauso bat eman behar dut albo batera, aldaketa bat behar dut". Halaber, azken urteak maila profesionalean eta pertsonalean gogorak izan direla aitortu du, "ustekabeko osasun arazo bat barne, bosgarrenez aurkeztea onartu nuenean espero ez nuena".

Totorikaguenak 25 urte eman ditu guztira udalgintzan; legegintzaldi bi zinegotzi eta 17 urte alkate. Gaur egungo alkateen artean, Durangaldean karguan urterik gehien eman duen politikaria da.

Palestinaren aldeko elkarretaratzea egingo dute domekan, Berrizen

BERRIZ • E.H./M.Z.

Berrizko Giza Eskubideen Aldeko Taldeak Palestinaren aldeko ekitaldi bi antolatu ditu aste honetarako. Lehenengoa eguaztenean izan zen; Berrizko Kultur Etxean berbaldi bat eman zuten. Bestalde, domekarako elkarretaratzerara deitu dute. Eki-mena otsailaren 25ean izango da, Berrizko Urriaga Plazan, 13:00etan.

Urte amaieratik hona, Berrizen hainbat ekitaldi egin dute Palestinaren alde. Herriko hainbat erakunde eta elkarrek bat eginda, manifestu bat irakurri, argazki herrikoia bat atera, eta *Geldi dezagun genozidioa Palestinan* elkarretaratzea egin dituzte, besteak beste.

Mallabian ziklo menstrualari buruzko tailerra emango dute martxoan

MALLABIA • J.D.

Askazi proiektuak –hilekoari buruzko ezagutza zabaltzeko sorturikoak– ziklo menstrualari buruzko tailerrak emango ditu Mallabian. Klaseak martxoaren 1ean eta 8an dira, 18:00etatik 20:00etara, eskolako gimnasioan. Zaparrada elkarteak antolatu du ekimena. Izen ematea zaparradaelkartera@gmail.com helbidean edo [@zaparrada_elkartera](https://www.instagram.com/zaparrada_elkartera) Instagram kontuan egin daiteke. Ikasleentzat eta langabeentzat doakoa da, eta gainerakoentzat 10 euro. Ikastaroan, hilekoaren alderdi fisiko zein emozionalak eta hilekoan zehar erabiltzeko produktu alternatiboak azalduko dituzte, eta autoezagutzarako teknikak landuko dituzte.

Mugarra taldeko emakumeak irabazle Garaiko duatloian

Emakumeen kategoriako txapelak eskualdean geratu ziren. Gizonezkoen proba Peñota Dental Alusigma taldeak irabazi zuen, eta kategoria mistokoa Galdakaoko taldeak

GARAI • EKAITZ HERRERA

Joan zen domekan errelebobakako duatloi proba jokatu zen Garain. 19 taldek parte hartu zuten, 61 kirolarik guztira. Eta asko izan ziren Euskal Herrian bakarra den kirol proba hau ikustera joandakoak Garaira. Eguraldia lagun, giro polita egon zen kirol proban eta herriko kaleetan.

Talde hauek osatu zuten amaierako podiuma: Emakumeen kategorian, Mugarra triatloi taldeak (Durango), Garraitz kirol taldeak (Lekeitio) eta Mugarra triatloi taldeak (Durango);

gizonezkoen kategorian, Peñota Dental Alusigma (Portugalete), Garraitz kirol taldeak (Lekeitio) eta Amandarri triatloi taldeak (Lekeitio); eta kategoria mistoan, Galdakaoko triatloi taldeak (Galdakao), Indarpak-ek (Iurreta) eta Andoingo triatloi taldeak (Andoain).

anboto.org web atarian domekako kirol probak emandako irudirik onenen bilduma agerida. Argazkiak Maialen Zuazubiskarrenak dira.



Mugarra Triatloi Taldeko irabazleak.

DENDAK BAI FEST

MARTXOAK 1, 2, 3
DURANGO 2024 - LANDAKO GUNEA

Ostirala: 10:00 - 14:00 / 17:00 - 21:00
Larunbata: 10:00 - 21:00
Igandea: 11:00 - 14:00

Parte hartu zozketan

Laguntzaileak: durango irratia, DURANGO Uda - Auzantzerak, Durango Uda - Auzantzerak, Durango Uda - Auzantzerak

Antolatzailea: Dendak Bai Durango

688 738 102 | www.dendakbai.eus

Anbotokideentzat deskontua Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan

Beste hainbat saltoki eta zerbitzuek ere ANBOTOren deskontu sarean parte hartzen dute



Andoni Axpe Urkioileko arduraduna eta Jone Guenetxea ANBOTOkoko zuzendaria.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Anbotokide izatea urtean 30 euro ordaindu eta ANBOTOren komunitatearen parte izatea da, euskararen erabilera sustatzea da, eta herrigintzaren aktibazioan pausoak ematea. Trukean, ANBOTOK hainbat abantaila eskaintzen die Anbotokideei: zozketak, onura fiskalak eta deskontuak, besteak beste.

Deskontu sarea hasten doa apurka-apurka, eta orain Anbotokideek erregaia botatzerakoan

ere deskontua izango dute, Urkioil gasolindegiei eskerrak. Deskontu hau litroko 3 zentimo izango da, eta Izurtzako eta Otxandioko gasolindegietan emango da.

Urkioileko deskontuaz gainera, beste hainbat saltokitan ere deskontuak dituzte Anbotokideek: Eureka! Zientzia museoan, Hitz liburu-dendan, Hontzaextrem abentura parkean, Iurreta kopistegian, Kirol Errota gimnasioan, Landako optikan, Mancisodor 1866 bitxi-dendan, Naturalki belardenda-ekodendan, Urrikeri liburu-dendan, La Perlan, Naia Gorroño Hortz Klinikian, Hontza museoan, Uralde hortz klinikian, Eileken, Tabira Bitxidendan, Psikologia Amorebietan, Keinu optometria zentroan, Gau-tun eta Solozabal Altzariaken.

Politikan

Carlos Garcia Fernandez
PP



Gure nagusiak lehenengo

Gure nagusiak bizitza osoan lan egin duten pertsonak dira, beren familiak aurrera ateratzeko eta guri gizarte hobea uzteko; horregatik, administrazio guztietan izan behar dute lehenetasuna, eta gure errespetu eta maitasun guztiarekin tratatu behar ditugu.

Hori kontuan hartuta, jasanezina da Astarloa eraikineko Durangoko Nagusien Zentroak irisgarritasun-baldintza oso txarrak izatea mugikortasun-arazo handienak dituztenentzat. Etengabe hondatzen den igogailu batekin topo egiten dute, eta, alternatiba gisa, eskailera batzuk baino ez daude, arrapalarik eta sartzeko beste modurik gabe.

Jasanezina da Durangoko Nagusien Zentroak irisgarritasun-baldintza oso txarrak izatea

Urte askoan utzikieriaz jokatu ondoren, bada garaia egoera hori konpontzeko, eta, horregatik, zinegotzi gisa 20.000 euroko partida bat proposatu nuen 2024ko aurrekontuetan arazo horiek konpontzeko. Partida hori onartu egin da eta egun gutxi barru hasiko dira eraikina konpontzen. Gainera, uste dut gure nagusiek beharizan gehiago ere badituztela, eta guk lagundu egin diezaiekegula Durangoko Udaletik. Horrela, alargunei eta pentsio baxuak dituztenei 50 euroko laguntza ematea proposatzen dut, beste laguntza batzuekin bateragarriak direnak, etxeko gastuak ordaintzeko. Behar-beharrezkoa den laguntza dela uste dut, asko lagunduko diena gehien behar dutenei eta gehien merezi dutenei: gure nagusiei.

Durangaldea asteen

'Egin zaitez ikusgai' kanpaina solidarioak 2.000 betaurreko inguru batu ditu Durangon

Durango I Egin zaitez ikusgai kanpainaren bultzatzaileak pozarren agertu dira durangarrek erakutsitako elkartasunagaz. 14 kaxa betaurreko bete dituzte. "2.000 inguru guztira", zehaztu du Mikel Porto eibartarrak. Bera da kanpainako koordinatzailea. Eta Durangon legez, Euskal Herriko hainbat herritan gauzatu du egitasmo bera. "Udaletxeetan objektu galdu ugari egoten da. Urte bi igarotakoan, agortu egiten da horiek erreklamatzeko epe legala, eta hor betaurrekoak batzeko aukera egoten da", azaldu du. Halantzik bururatu zitzaizkan kanpaina, orain urte batzuk. Porto abendu aldean ipini zen Durangoko udaleko teknikariekin hartu-emanen. "Arantza Maiztegi izugarri lagundu digu, eta, kanpaina amaitu den arren, erabilerarik ez duten betaurrekoak batzeko kanpaina martxan izango da udalerrian", dio. Betaurrekoak Senegalera bidean ipiniko dituzte, Baobab eta Ayuda Contenedores elkarten bitartekaritzagaz. Hango oftalmologia zentro batera eramango dituzte, han beharri-zana dutenei beharrezko tratamenduak egin eta banatzeko.



Arantza Maiztegi teknikaria eta Mikel Porto egitasmoaren bultzatzailea.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Doakotasunaren ordainetan

Haur Hezkuntzako etapa ez da derrigorrezkoa, baina bai beharrezkoa. 2003an sortu ziren Haurreskolak, lana eta familien antolaketa behar askotarikoei erantzuteko asmoz. 2023/24 ikasturtean doakotasuna etorri da, hainbat urtez borrokatu eta eskatu duguna eta komunikabideetan lau haizeetara zabaldu dena. Baina zeintzuk dira doakotasunaren ondorioz pairatzen ari garen baldintzak? Haurren asistentzia kontrolatzeko aplikazio bat jarri digute eta betetzera derrigortu. Asistentzia justifikatu beharrak familien egunerokoa baldintzatzen du. %80ko ez asistentzia horretara iritsiz gero haur bat kanporatua izan daiteke. Nork ez du nahi etxeko txikiekin denbora gehiago pasatu eta lanik ez badu haurra geroago sartu edo lehenago ateratzea haurreskolatik? Asistentzia kontrol honekin familiek ez dute azken hau egiteko aukerarik, haurreskolako aplikazio horretan hutsegite ez-justifikatu bat litzatekeelako. Inposatu diguten kontrol sistema honek ez du ez argudio ez oinarri sendorik. Horregatik, doakoa den zerbitzua eta unibertsal beharko lukeena denon aukera izan dadin eskatzen dugu, zerbitzua jasotzen dutenak era egokian erabiltzen duten ala ez epaitu gabe eta ezarri diguten aplikazio sistema bertan behera geratzea. Eskertuko genuke, egunerokotasunean familiekin batera eskutik helduta hainbat urtez haurreskola bakoitza hauspotzen dihardugun hezitzaileak eskatutakoa kontuan hartzea, benetan haurren garapena, ongizatea eta familien beharri-zanek erdigunean jarriz.

Itxaso Oregi Arabiourrutia, Esti Arrizabalaga Agirre eta Garazi Urien Ortuzar

HAURESKOLAK PARTZUERGOKO HEZITZAILEAK

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak



MAITASUN KAPITALA
Karmele Jaio
(Elkar)



ITZULERAK
Miren Agur Meabe
(Elkar)



LIRIO ZURIA
Fabcaro & Didier Conrad
(Salvat)

GAER DESINFEKZIOAK













Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ





ZENBATU OBJEKTUAK

	=	
	=	
	=	
	=	
	=	
	=	




LABIRINTOIA



KOMIKIA

Asmatu istorio bat eta marraztu ezazu laukitxoetan. Idatzi elkarrizketak bunbuiloetan.





'Shine'

DANTZA ELORRIO :: Otsailak 23

Lasala konpainiak 'Shine' dantza ikuskizuna taularatuko du, Elorrion

Lasala dantza konpainiaren *Shine* lana ikusteko aukera egongo da, gaur, Arriola antzokian. Estasia eta gorputzaren martirioa ikertzen dituen ikuskizuna da Shine. Autoesklabotzaren ereduaren bitartez, *Shine* gorputzaren objektualizazioa, hedonismoagazko adikzioa, epelaburtasuna eta ihesbidearen bilaketa etengabea lantzen ditu, dantza konpainiak argitu duenez. Taldeak zuzentzen duen Judith Argomaniz donostiarrak berak

zuzenduriko lana da. "Tekno musikaren zalaparta burrunbatsuak eta zertan sinetsi bilatzen dutenen saetek zoratuta, zortzi gorputz estasiaren arrakastapera jausten dira -estasia funtsezko droga baita enpatiarik bako munduan ibiltzeko- eta gure orainak zuzenduriko koreografia lantzen dute: erritual berriak, zenbait kultu grinatsu eta asmatuak erlijioak hartu beharra", adierazi dutenez. Ema-naldia 20:00etan hasiko da.

Otsailaren 23an

ATXONDO antzerkia

'Erresistentzia arazo fisiko bat da' (Maite Aizpurua Olaizola), 20:30ean, Amillena Arrazolako bentan.

BERRIZ antzerkia

'Kutxartean' (Teatro Paraíso konpainia), 17:00etan, Kultur Etxean.

IURRETA ipuinak

'Versos rebeldes' helduentzako ipuin kontaketa saioa (Haizea Malabaricia eta Yoli Rebote), 19:00etan, bibliotekan.

IURRETA ipuinak

'Kontuak, kantuak eta zenbait xelebrekeria' ipuin kontaketa saioa (Itziar Saenz de Ojer), 17:00etan, bibliotekan (3-5 urte). Bigarren saioa, 17:45ean (sei urtetik gora).

ZORNOTZA antzerkia

'Nevenka' (Histrión Teatro konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA kontzertua

Noran, 23:15ean, Zelaieta zentroko kontzertu gelan.

ZORNOTZA deialdia

Material bilketa Munduaz Blai elkartearen eskutik, 16:00etatik 20:00etara, Besue kultur elkartearen

lokalean. Parazetamola eta ibuprofenoa ume eta helduentzat eta omeprazola batuko dituzte.

Otsailaren 24an

BERRIZ antzerkia

'Nevenka' (Histrión Teatro konpainia), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia

'La sed del minotauro' (Khea Ziater konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO musika

40 minutu Rock Jaialdia: Burutik+ Ibil Bedi + Raimundo el Canastero + Arene6 + Nevadah + Streetwise + Belako + Des-Kontrol + Dam + Nogen + Su ta Gar + Esne Beltza + Hofe X 4:40, Landako Gunean, 11:00etan hasita.

ZORNOTZA musika

'Luchamos contigo, Alex' Kontzertu solidarioa Gospel Bilbao taldeagaz, 18:30ean, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 25ean

DURANGO musika

'Durango kantari', 12:00etan, Otamotzena parkean.

DURANGO dantza

Adinekoentzako dantzaldia, 18:30ean, Landako kirodegian.

Otsailaren 29an

ABADIÑO musika

KARAMA 6TET, 19:00etan, Isiotu elkartearen lokalean.

Otsailean zehar

ELORRIO erakusketa

'Biribilak mendietan. Seres. Kortak. Saroiak' erakusketa, Iturri kultur etxean.

ZORNOTZA erakusketa

'Naizen emakumea', Zelaieta zentroan. Errumaniako zazpi arkitektoen lana eta bizitza jasotzen dituen erakusketa.

Martxoaren 1ean

DURANGO tailerra

Mahai jolasen tailerra, 17:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

DURANGO berbaldia

'El espíritu del neoliberalismo y el mito de la libre elección' (Hizlaria: Ana de Miguel filosofo feminista eta idazlea),

18:30ean, Plateruena kultur aterpean.

ELORRIO kontzertua

Pelax + Txopet, 22:00etan, Ateneoan.

IURRETA zirkoa

'Ping Pang' (Xabi Larrea), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia

'La sed del minotauro' (Khea Ziater konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 17ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Arketipoak' (Jenni Alvarado), Arte eta Historia Museoa.

Martxoan hasita

IZURTZA tailerra

'Disfrutando del ridículo' Klowen ikastaroa, (Ganso&Cia konpainia) Martxoko eta apirilko martitzenetan, 18:30etik 20:30era, Korrala sormen gunean. Ez da beharrezkoa aurretiaz esperientzia izatea. Informazioa: 678 495 082 / korrala@ganso.info

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• El correo
barikua 23: 19:30

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Políticamente incorrectos

barikua 23: 18:30 / 21:00
zapateria 24: 19:30 / 21:30
domeka 25: 19:30
astelehena 26: 18:00 / 20:15
martitzena 27: 18:00 / 20:15
eguztzena 28: 19:00

• Nequ hurbilak

barikua 23: 18:30 / 21:00
zapateria 24: 19:30 / 21:30
domeka 25: 19:30
astelehena 26: 18:00 / 20:15
martitzena 27: 18:00 / 20:15
eguztzena 28: 19:00

• Madame web

barikua 23: 18:30 / 21:00
zapateria 24: 17:00 / 19:00 / 21:30
domeka 25: 17:00 / 19:30
astelehena 26: 17:45 / 20:15
martitzena 27: 17:45 / 20:15

• Museoaren zaindaria

zapateria 24: 17:00
domeka 25: 17:00

• Soul

zapateria 24: 17:30
domeka 25: 17:00

• Giulio Cesare

eguztzena 28: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• La tierra prometida (The Bastard)

zapateria 24: 20:00
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:00

• El arca de Noé

domeka 25: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• La zona de interés

domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:15

• Patrick


domeka 25: 17:00

• Bizkarsoro

eguztzena 29: 20:15

ANBOTON ESKELAK IPINTZEKO NEURRIAK ETA PREZIOAK

Eskelak eta oroigarriak paperean




**Izena Abizena
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren
13an, 85 urte zituela

Testua / olerkia

Familiakoak




**Izena Abizena
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren
13an, 85 urte zituela

Testua / olerkia

Familiakoak



Prezioa 2x2
modulo

Paperean edo webgunean **75 €**
Anbotokideek 65 €

Paperean + webgunean **115 €**
Anbotokideek 105 €

Prezioa 3x2
modulo

Paperean edo webgunean **110 €**
Anbotokideek 100 €

Paperean + webgunean **150 €**
Anbotokideek 130 €

Eskelak webgunean

ESKELA

**Izena
Abizena Abizena**



DURANGO

2022ko maiatzaren
30ean hil zen.

ESKELA



Izena Abizena Abizena

Testua /Olerkia

Durango, 2022ko maiatzaren 30ean

Eskelak ipintzeko moduak:

- Anbotoren bitartez: **946 810 658** telefono zenbakira deituta edo **anboto@anboto.org**-ra idatzita
- Anbotoko bulegora etorrira: Bixente Kapanaga, 9 behea
- Ehorztetxearen bitartez

Eguazteneko 14:30ak arte jasoko dugu informazioa.



Laura Freixas Revuelta

Idazlea

BARTZELONA | 1958

YOLANDA AGUAS

“Orain ez naiz lehen bezain epaitua sentitzen, edo ez dit ardura kanpoko epaiak”

Laura Freixas idazle katalanak Durangoko liburutegia bisitatu du, 'A todos nos falta algo. Diario 2000-2002' liburu berria aurkezteko eta 'Cuentos a los cuarenta' liburuari buruzko mahai-inguru batean parte hartzeko

LITERATURA • IGOR GALARZA

Laura Freixas Revuelta idazleak Durango ezagutzeko aukera izan du asteon. Hainbat berbaldi eman du 'A todos nos falta algo. Diario 2000-2002' liburu berriaren eta 'Cuentos a los cuarenta' liburuaren harira Urriko liburua denda, Bizenta Mogel Bibliotekan eta Andragunean. Hain zuzen ere, lan bietan bizitzako etapa berari buruz berba egiten du katalanak.

'Cuentos a los cuarenta' 2001ean argitaraturiko liburua da. 40 urteren bueltan zenbiltzan orduan. Zelan gogoratzen dituzu liburu haren lana eta idazketa?

Liburua nire bizitzako giltzarritzako etapa batean idatzi nuen, trantsizio bat bizitzen nenebilen, baina ez nekien norantza zen trantsizio hori. 40 bat urte neuzkan eta nire bizitzako etapa bat bete nuela sentitzen nuen, gura nituen gauza asko lortu nituen: idazlea izatea

lortu nuen, lanak argitaratzea lortu nuen, ezkondu egin nintzen, alaba bat izan nuen, seme bat adoptatzekotan nengoan... azken hori liburuan kontatzen dut. Hori guzti

Nahiz eta gauza asko egin eta lortu nuen, "eta orain zer?", galdetzen nion neure buruari; asperdura sentsazioa nuen, errutina sentsazioa...

hori bizi ostean, ez nekien hurrengo etapa zein zen, geldituta sentitzen nintzen, asperdura sentsazioa neukan. Amets asko bete nuen, baina amets horiek errealtate bilakatzean, zure buruan izaten duten distira eta aura galdu egiten dira.

Aro lasai batetik zentozen?

Aro lasaia zirudien, baina gertakari garrantzitsuekin, eta atseka-

bea eta ziurgabetasuna sentitzen nituen, baina ez nekien zergaitik neuzkan sentsazio horiek.

Hori guzti hori liburu batean azalera-tu zenuen.

Cuentos a los cuarenta liburuak eguneroko bizimodua, errutina eta helburu batzuk lortu osteko galderak planteatzen ditu. Beraz, liburuak hiru gai lantzen ditu: lehenengo, bizitzako etapena dago; kontatzen diren istorioetan, adinak eragina du pertsonaien ikuspegietan. Beste gai bat, ironiatik eta umoretik gehiago lantzen dudana, emakumeen eta gizonen arteko elkarriketarako zailtasuna da, uste baitut munduan egoteko eta bizitzari begiratzeko modu desberdinak ditugula. Eta, azkenik, fantasiaren eta errealtatearen arteko kontrastea lantzen du liburuak, ametsaren eta orainaren artekoa. Liburuaren hasieran aipatzen dut errealtatea jasateko amestea behar dugula; eta amaieran diot amestea ondo dagoela,

baina errealtatera bueltatu behar dugula, ametsak antzuak baitira.

Aldatu al da ezer 2001eko Laura Freixasek zuen ikuspegitik gaur egun duen ikuspegira?

Liburuak nire egunerokoan idazten nuena biltzen du. Estilo aldetik zuzenketak egin behar izan nituen eta detaileren batzuk kendu nituen, baina, tira, nire egunerokoa da gordinan. Garai hartan etsipen handia sentitzen nuen bizitzagazko. Nahiz eta gauza asko egin eta lortu nuen, "eta orain zer?" galdetzen nion neure buruari, asperdura sentsazioa nuen, errutina sentsazioa... eta uste nuen urteek aurrera egin ahala berdina izango zela, baina aldaketak egin nituen nire bizitzan, eta orain, 65 urte gaz, oso pozik bizi naiz.

Gaur egun esaten da 40 urteak lehengo 30 urteen antzekoak direla; baita negatiboki ere?

Ikuspuntu pertsonala da izan daiteke, baina nire 30ek etapa aldaketa

bat suposatuz nire bizitzan, gertakari ugari bizi izan nuelako. Hortik aurrerako hamar urteak ezegonkortasunez bizi izan nituen, eta 40 bat urte nituenerako banuen oreka bat: etxe bat ordaintzen nengoan, alaba bat izan nuen, ezkondu nengoan... nire helduaroa 40 urte gaz hasi nuen. Baina, bai, gaur egungo 40 urteko jendeak nik 30egaz izan nuen ezegonkortasuna bizi duela ikusten dut.

Emakumeok geure karrera sakrifikatzen dugu neurri handi batean, eta gizonek ez dute horren beharrik izan, hori geuk egin baitugu beraiengaitik

Garai guztietan egongo zen, baina bizitzako etapa desberdinetan jasaten dugun presio soziala izugarria da gaur egun, batez ere 20, 30 eta 40 urteren bueltan. Zelan baldintzatzen du horrek norbanakoa bere bizitza pertsonalaren eraikuntzan?

Batez ere, hezkuntzan etapa luzea egin dugunon gain presio sozial handia dago ezarria. Zer ikasi aukeratu dugu, baina horrek erantzukizuna dakar, espektatiba sozial batzuk daude, eta formakuntza txikia izan dutenen aldean exijentzia handiagoa da. Horrez gainera, emakumeengan presio gehigarri bat sortzen da: familia bat osatu behar duzu, ama izan behar duzu, eta horiek bete guran gatz da karre- ra profesional on bategaz uztartzea. Nik espektatiba hori sentitu nuen. 65 urtera heltzearen alde ona da dadoak jaurtita daudela jada, eta horrek lasaigo bizitzeko aukera ematen du.

Gizartearen aurreiritzirik barik helduagoa izateko eta epe ertain-luzerako etorkizunerako planik ez izateko eskubidea al dago?

Nik, adin honetara helduta, gizartearen aurreiritzi eta espektatibek gutxiago ardura didatela sentitzen dut. Ez naiz lehen bezain epaitua sentitzen, edo ez dit ardura kanpoko epaiak. Horrek laguntzen du deskantsu apur baterako.

Zer eskatzen dio gizarteak 40 urteko gizon bati, eta zer 40 urteko emakume bati?

Gazteak garenean, ez gara konturatzten emakume eta gizonen arteko desberdintasunaz. Ikaslea nintze- nean, orduko nire bikotekideak lez ikasten nuen. Aro horretan desberdintasunaren lehenengo aleak bizi ditugu emakumeok, eta 40 urteren bueltan nabarmena da non geratu den bataren ibilbide profesionala eta non bestearena. Emakumeok geure karrera sakrifikatzen dugu neurri handi batean, eta gizonek ez dute horren beharrik izan, hori geuk egin baitugu beraiengaitik.

Durangaldeko zein nazioarteko taldeak oholtzaratuko dira bihar, 40 Minutu Rock jaialdiaren zortzigarren edizioan

Su ta Gar, Esne Beltza, Nevadah, Belako eta DAM talde palestinarra dira elkartasun jaialdiko izen nagusiak

MUSIKA • IGOR GALARZA

Bihar jendetza handia espero da Durangon. Izan ere, 40 Minutu Rock elkartasun jaialdiak zortzigarren edizioa antolatu du Landako Gunean. Aurten *Oihuka astinduz orratzak* lelopean antolatu dute musika jaialdia, eta, guztira, hamazortzi taldek emango dute kontzertua. Arene 6, Belako, Burutik, DAM, Des-kontrol, Esne Beltza, Hofe x 4:40, Ibil Bedi, Nevadah, Nøgen, Raimundo el

Oraindino ere zabalik dago elkartasun jaialdiko sarrerak erosteko aukera, BIBEren webgunean

Canastero, Streetwise eta Su Ta Gar taldeek oholtza nagusiak hartuko dituzte; DJ Kuku & Kene, LaMia Mari, Kiliki Frexko DJ Set, Pineapple Sweets eta Xaukena Xauk taldeek, ostera, karpako gunean emango dituzte euren saioak. Durangaldeko sortzaileei dagokienez, Nevadah, Xaukena Xauk, eta DJ Kuku & Kene taldeek ordezkaturiko dute eskualdea.

Landako Guneak 10:30ean zabalduko ditu ateak, eta 11:00etan hasiko da jaialdia, Burutik taldearen kontzertuagaz. Jaialdia



Bulego taldearen kontzertua Landako Gunean, iazko edizioan. AINHOA IRAOLA

goizaldean amaituko da, Su ta Gar, Esne Beltza eta, azkenik, Hofe x 4:40 izango direlarik zortzigarren edizioa zarratuko duten taldeak. Esne Beltzaren kasuan, taldeak 2023ko abenduan iragarri zuen 2025ean oholtzak utziko zituela. Biharkoa izango du iragarpenaren ondoren emango

duen bigarren kontzertua, lehenengo kontzertu handia. Handia izango da, milaka pertsona batzea itxaroten baita Landako Gunean. Oraindino badaude sarrerak, BIBEren webgunean, eta azken egunera arte sarrerarik geratuko balitz, egunean bertan ere ipiniko dituzte salgai.

Nazioarteko bisita

40 Minutu Rock-ek bisita berezia izango du aurten. Izan ere, DAM talde palestinarra etorriko da Durangora. Anes Baños antolatzaileak adierazi duenez, taldea gonbidatzeko ideia urriaren 7an Palestinako egoera gogortzearen harira etorri zen: "Elkartasun jaialdi bat garen

aldetik, Palestinako herriari gure elkartasuna zelan adierazi pentsatzen aritu ginen. Fermin Mugu-ruzaren bitartez, DAM taldearen proposamena heldu zitzaigun, eta proposamen horri heldu gure elkartasun keinua helarazi gura genioke herri palestinarri".

Gai librean

Espazio komunitarioak erdigunean

Palacios del pueblo: políticas para una sociedad más igualitaria (Capitan Swing, 2021) lanean, Eric Klinenbergek azaltzen du gizarte-azpiegiturek, bibliotekak, parkeek eta bestelako espazio komunitarioek eginkizun erabakigarria dutela ongizatea eta gizarte-kohesioa sustatzeko. Klinenbergek aurkezten duen adibide nabarmen bat 1995ean Chicagon izan zen bero-bolada da. Egoera sozio-ekonomiko zaurgarri-dun bi auzoren esperientziak alderatzen ditu: bata azpiegitura sozial sendoarekin eta bestea gabetia nabarmenekin. Klinenbergek, liburuan, bero-boladak auzo horiei neurritz kanpo nola eragin zien deskribatzen du. Gizarte-azpiegitura sendoa zuten auzoetan heriotza-tasak askoz apalagoak izan ziren, bertako errekurtsioei eta sortutako giza-sareari esker. Gai-



Esti Albizu Goikoetxea
Bizenta Mogel Biblioteka

Bizenta Mogel biblioteka herritarren parte-hartzea sustatzeko bizi-eremu gisa erakutsi nahi dugu

nera, auzo horietako heriotza-tasak auzo aberats batzuetan jasandako antzekoak izan ziren. Azpiegiturretan hutsuneak zituzten auzoetan, berriz, heriotza-tasak izugarri handiak izan ziren. Esperientzia honekin, gizarte-azpiegituren beharraz eta garrantziaz hitz egiten digu Klinenbergek. Kasurako, bibliotekak komunitatearentzat betetzen duten funtsezko zeregina nabarmentzen du; hezkuntzarako zein norberaren garapenerako baliabideetara-

ko sarbidea emateaz gain, pertsonen kultura-jardueretan, ekitaldietan eta gizarte-programetan parte hartzeko lekua ere bada.

Bizenta Mogel biblioteka herritarren parte-hartzea sustatzeko bizi-eremu gisa erakutsi nahi dugu; denetariko pertsonak biltzea, ezagutzak eta esperientziak partekatzea eta komunitate-loturak indartzea dira gure helburuak. Gainera, udaleko beste zerbitzuekin elkarlanean, biztanleen askotariko beharrei erantzuteko zerbitzuak eta programak eskaintzen ditugu, ekitatea eta hezkuntza- eta kultura-baliabideetarako berdintasunezko sarbidea sustatuz.

Bibliotekak "herritarrentzako jauregiak" dira: komunitatearen gizarte-egituraren osagai integralak diren heinean, gizarte kohesionatuagoa eta erresilienteagoa garatzen lagunduko dute.

Espeleologia, rappela, eskalada... nerabeeek naturaz gozatzeko eskaintza areagotu du Alpinok

Alpino-Tabira mendi klubak martxoan ekingo dio 12tik 17 urtera arteko gazteei begirako aurtengo programari

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Alpino-Tabira mendi klubak nerabeei beren-beregi zuzenduriko ekintza sorta prestatu du, hirugarren urtez jarraian. Aurtengo egitarauak aniztasuna du ezaugarri nagusi, inoiz baino gehiago. Esaterako, irailerako espeleologia irteera bat antolatu dute, lehenengoz. Gorbeia Parke Naturalean dagoen Mairuelegorreta kobazulora ere joango dira.

"Mendiaz eta naturaz gozatzeko modu asko dagoela erakutsi gura diegu gazteei", azaldu du Alpino klubeko Mireia Nietok, eta hori buruan dutela osatu dute 12tik 17 urtera arteko gazteentzako eskaintza. Martxoko lehenengo irteeran elurretara joango dira, neguko teknikak ikastera; apirilko abentura dosia eskaladak eta rappelak osatuko dute, eta maiatzean Kantabriako via ferrata batean barneratuko dira, barranko jaitsiera eta abarrekin.

Etapia berrirako amuak

Nerabearoa adin konplikatu da. Gurasoen altxotik irten eta mundu zabala euren kabuz eta lagun artean deskubritzeko nahia sentitzen dute gazteek. Etapia berri bat bizitzan. Nerabeen interesa mantendu gura duenak euren beharrezanetara moldatu behar du eta horixe egin dute Alpinok. Hiru urte daramatzate nerabeen gustuetara propio diseinaturiko irteerak antolatzen. "Afizioak sortzen diren sasoi da eta guk naturaz gozatzeko aukera eskaini gura diegu", dio Nietok. Ekimenen aniztasuna da gazteak erakartzeko amu bat. Erdigunean natura dago



Askotariko moduak eskaintzen dituzte naturaz gozatzeko.

eta hark abentura gosea asetzeko eskaintzen duen abanikoa zabala da: raftinga, arroiak bajatzea, rappela... Beste abantaila bat da irteeretera lagun artean eta euren adinekoekin joateko aukera eskaintzen dietela. Gurasorik barrik

bai, baina ez bakarrik; abentura irteeretan, profesionalak diren enpresa batez joaten dira. "Oso pozik gaude enpresa horregaz. Jende jatorra da, gaztea, euskalduna eta animoz betea, eta nerabeei baliok erakusten ahalegintzen dira:

naturagazko maitasuna, elkarrekiko errespetua, elkar zaintza...". 2022tik hona egitasmoa sendotzen joan da apurka-apurka. Lehenengo urtean, ekimenen bat bertan behe- utzi behar izan zuten, nerabe faltagaitik, baina iaz, azken irteera

URTEKO EGITARAUA

- **MARTXOAK 9-10.** Neguko teknika, Kantabriako Alto Campoo eski estazioan.
- **APIRILAK 28.** Eskalada eta rappela, Urdulizen.
- **MAIATZAK 18-19.** Via ferrata eta barranko jaitsiera, Liebanon (Kantabria).
- **IRAILAK 29.** Espeleologia, Mairuelegorreta kobazuloan, Gorbeia Parke Naturalean.
- **URRIAK 26-27.** Gau Baltza

batzuetan, zotz egin behar izan zuten eskaria espero baino handiagoa izan zelako.

Nietok azpimarratu du talde zabala direla, eta ekimenen bat antolatu edo proposatu gura dutenak "ongietorriak" direla. "Asko bagara, bakoitzak lan gutxiago eginda gauza politik egin daitezke", esan dute.

Familia-irteerak

Alpinoren familia irteerak ere azpimarratzekoak dira. Umeei bideratuta daude eta familian joaten dira. Kasu honetan ere natura bere adarazpenik zabalenean hartzen dute irteerak antolatzerakoan. 2017tik hona makina bat tokitara joan dira: Eginora, animalien aztarnen bila; Zumaiara, hango flyschak ezagutzera; Valdezcarayra, eskiatzera; Nafarroara, Medukiloko kobazuloan barneratzera...

Tabirakoko jokalariek aitzindariak omenduko dituzte biharko partiduan

1973tik orain arte Tabirakon jokatu duten emakumeen ordezkariak zabala batuko da Landako Kiroldegian. Klubak omendu egingo ditu saskibaloia partiduen atsedendian

SASKIBALOA • J.D.

Tabirako-Baqué emakumeen talde nagusiak Lehen Nazional Mailari dagokion liga partidua jokatu du zapatuan, 19:00etan, Mondragon Unibertsitatearen kontra. Partidu hori ekimen berezi baterako baliatu du klubak. Izan ere, aurtengo 50. urte betetzen dira Tabirakon emakumeen taldea sortu zenetik, eta urtean zehar hainbat ekimen antolatzen

dabiltza urteurrena ospatzeko. Biharko partiduen atsedendian, 1973tik gaur egunera arte Tabirakon jokatu duten emakumezkoen ordezkariak zabala kantxaratuko da eta omendu egingo dituzte.

Aurrera begira, ekimen gehiago egongo da urteurrena ospatzeko. Esaterako, bazkari herrikoia eta emakumeen taldearen argazki erakusketa antolatu dituzte

ekainerako. Urteurrenaren kolofoia ekain amaieran San Agustin kulturgunean egingo duten ekitaldia izango da. Orain arte egin dutena ere ez da gutxi. Besteak beste, iazko abenduan, belaunaldi desberdinetako jokalariek osaturiko beteranoen partidua jokatu zituzten Landako Kiroldegian. Ekimenak Durangoko hainbat ikastetxetako nesken taldeak ere batu zituen.



lazko abenduan jokaturiko beteranoen partiduko irudia.

Iazko arrakastaren ondoren, Euskotren Women Winter Series txapelketak bigarren aldia hasiko du astelehenean, Durangon

Datozen hiru astelehenetan jokatuko dute; jaialdi bakoitzean, emakumeen partiduen ostean, gizonen buruz buruzko txapelketakoak jokatuko dira



Txapelketako pilotariak, antolatzaileak eta Durangoko Udaleko ordezkariak eguaztenez eginiko aurkezpenean.

ZESTA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekua zesta-puntaren erdigune bihurtuko da datozen bi asteetan. Iazko arrakastaren ondoren, emakumeen Euskotren Women Winter Series txapelketaren aldi

berri bat hartuko du datozen hiru astelehenetan. Otsailaren 26an eta martxoaren 4an finalerdiak jokatuko dira, eta martxoaren 11n finala. Jaialdi horien barruan, gizonen buruz buruko txapelketa ere jokatuko da, goi mailakoak diren lau zesta-

larigaz. Jaialdi guztiak 19:00etan hasiko dira.

Datorren asteleheneko lehenengo finalerdian, Helena Barrenetxea durangarrak eta Arai Lejardi markinarrak Maite Ortiz de Mendibil gasteiztarraren eta Frida Watkins

zumaiarraren kontra jokatuko dute. Beraz, Barrenetxeak gaur egungo zestalaririk onenetarikoa izango du bikotekide. Lejardi Winter Serieseko eta buruz buruko egungo txapelduna da. Gizonen buruz burukoan, bestalde, Johan

Sorozabalek eta Ludovic Laduchek neurtuko dituzte indarrak.

Bigarren finalerdian, Erika Murgartegi markinarra eta Maialen Aldazabal berriatuarrak Ihart Arakistain sopoloztarraren eta Elaia Gogenola berriatuarraren aurka ariko dira. Elaia Gogenola gazteak —2007an jaio zen— Eneritz Lejardi ordezkatu du txapelketan. Izan ere, atzelari gipuzkoarrak haustura du eskumako belauneko lotailu gurutzatuan, eta aurreikuspenen arabera urte erdian egongo da kantxetatik kanpora. Horrez gainera, aipatzekoa da Ihart Arakistainek atzean jokatuko duela, aurrelaria den arren. Izan ere, Eraman! Jai Alai enpresak bost aurrelari eta hiru atzelari aukeratu ditu eta Arakistain atzean ipini dute, maila eman dezakeela uste dutelako. Maila ona ematen badu, aurrera begira aukerak zabalduko zaizkio, aurrelari zein atzelari jokatzeo. Gizonetan, Aritz Erkiagak Unai Lekerikaren kontra jokatuko du.

Sarrerak

Txapelketarako sarrera eta bonuak dagoeneko eskuragai daude www.ermanjailai.com webgunean. Jaialdi guztiak ikusteko bonua 30 euro da.

Jokaldia

Moda

Euskaltzaindiaren arabera, 'moda' hitzaren definizioa hau litzateke: Leku, denbora edo talde jakin batean harrera oso ona duen ohitura edo joera; bereziki, janzteko molde igarokorra.

Moda hitza da sarri herri kirolean gabiltzan emakumeok entzuten duguna. Modan omen gaude. Baina hau da duela hilabete batzuk irratiko esatari batek hori entzun zidanean erantzun zidana: modan bazaude iraungitze-epea duzuela esan nahi du eta badira urte batzuk herri kirolean mutilekin batera txapelketak egiten ari zaretena. Ez bakarrik txapelketak, baita hainbat erakustaldi ere.

Eta hori egia da. Emakume batzuek hainbat gizonezko baino erakustaldi gehiago egin ditugu. Eta ez zait batere gaizki iruditzen. Nire aitak hogeit



Karmele Guisasa
Zenikazelaia
Herri kirolak

Moda hitza da sarri herri kirolean gabiltzan emakumeok entzuten duguna. Modan omen gaude

Jende berria bilatu beharra daukagu, lanean jarraitu beharra. Eta batzuetan nekatu egiten gara

egin zituen harrijasotzaile eta ez zuen plaza bat bera ere emakume batekin konpartitu. Egiten ditugun erakustaldi horiei esker erakutsi dezakegu gu ere gai garela kirol mota hauek egiteko. Beste modu batean, beste pisu batzuekin,

hasieran zailtasunekin (eta gerora ere bai, ez dugu gezurrik esango), baina ahal den neurrian kirola ondo egiten saiatzen gara. Saiatuz goaz aurrera. Urtez urte emakume gehiago sustatu nahian. Baina bide horretan ez da dena ederra. Atzerapausoak ere badaude. Zailtasunak daude txapelketa batzuk antolatzerako orduan, eta baliteke berandu baino lehen emakume faltagatik txapelketa batzuk ez jokatzea.

Jende berria bilatu beharra daukagu, lanean jarraitu beharra. Eta batzuetan nekatu egiten gara. Haustuta eta hustuta sentitzen gara. Baina bizitzan etapak daude eta etapa horiei izena jartzen jakin beharra dago. Baina sinetsi nahi dut etapa hau ez dela modan gauden etapa bat.

Hasi ziren, jarraitzen dugu eta beste batzuek jarraituko dute.



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezka • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO
Atikoa. Sukalde-egongela, logela eta komuna duxarekin. Iggogailua handia. Bizitzen sartzeko moduan.
193.000€ C.E.E. E



IURRETA
60 m². 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Iggogailua. Bizitzen sartzeko moduan.
155.000 € C.E.E= G



TABIRA
100 m². 3 logela, 2 komun, sukalde jantzia eta egongela handia. Balkoia. Garaje itxia.
350.000 € C.E.E= E



DURANGO
Guztiz berriztatua. Sukalde, egongela, 2 logela eta komuna duxarekin. Bizitzen sartzeko moduan.
155.000€ C.E.E= F



MATIENA
90 m². 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta ganbara.
229.000 € C.E.E= E



IURRETA
70 m². 2 logela, komuna, sukalde handia eta egongela-jangela. Bizitzen sartzeko moduan.
170.000 € C.E.E= E

// ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

PINONDO: Logela biko atiko ederra. Sukalde eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

BARRENKALEA: Logela bateko apartamentua. Sukalde, egongela, eta komuna. Trastelekuak.

TABIRA: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. Oso argitsua.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukalde eta komuna. Garajea eta trastelekuak.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



IURRETA
56,01 m²
DANTZARI: Halla, sukalde, egongela, 2 logela eta komuna. Egoera onean. Etxebizitza altua eta argitsua (ekialde-mendebaldea) Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Instalazio elektrikoa eta iturgintza berriztatua 2007. urtean. ITE-a oraintsu pasatakoa. Ez ditu berrikuntzak.
166.000 € C.E.E: E



MATIENA
69 m²
3 logela
J.A. UNZUETA: Egongela, sukalde, 3 logela, komuna eta despentsa. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-iparraldea). Argitsua. Ikuspegiak. Egoera onean. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu (eskola, autobus geltokia) ITE-a oraintsu pasatakoa.
179.000 € C.E.E: E



MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,06 m²-tik aurrera. 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekuak barne. Estreinatuko.
280.000 €-tik aurrera + BEZ



DURANGO
58 m²
logela
3
GASTEIZ ERREPIDEA: Egongela, sukalde eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (iparraldea). Ikuspegiak. Egoera onean baina berrikuntzak behar ditu. Leku onean kokatua, zonalde berdeak. ITE-a oraintsu pasatakoa. Lehenengo etxebizitza edo inbertsio moduan aproposa. Trastelekuak.
109.000 € C.E.E: D



DURANGO
71,95 m²
3 logela
MARTXOAREN 8KO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) Etxebizitza altua, argitsua eta ikuspegi ederrekin. Zonalde berdeak eta herriguneko sarrera / irteeratik gertu. 6 m²-ko trasteleku eta 11,47 m²-ko garajea. Egoera onean.
239.000 € C.E.E: D



ABADIÑO
318 m²
GAZTELUA AUZOA: Beheko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Koxe-tokia, 78 m² erabilgarri dituen. 15.317 m²-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekoa. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berriztatuko. Ingurune berdea eta lasaia. Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura. **BI FAMILIARENTZAKO AUKERA**
440.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekuak. Iggogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Iggogailua. Garajea eta trastelekuak. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Iggogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Iggogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Iggogailua. Trastelekuak eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KALEBARRIA: 2 logela, egongela-sukalde eta komuna. Iggogailua. **195.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Iggogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

MONTORRETA KALEA: 3 solairutako pabilioia 1.309 m² inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z= SALBUETSITA.**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikituko baserri lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikituko lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

BIDEBARRIETA: 3 logela, sukalde, egongela balkoi itxiarekin eta komuna. Iggogailua. **140.000 € / E.E. Z=E**

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Iggogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukalde, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Iggogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA


GOZATU GOZOTEGIA




Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Otsailaren 23an gure **Iñakik** 4 urte egin dauz. Zorionak etxeko danon partez!



Otsailaren 24an **Julenek**, gure dantzari eta artista trebeak, 13 urte egingo ditu. Oso ondo ospatu lagunekin eta ZORIONAK etxeko guztion partez!

Eskelak



Mari Tere Larruzea Uriguen

Durangon hil zen, 2024ko otsailaren 20an, 95 urte zituela.



Alabak: Marisa eta Josune; suhia: Juanan Aroma; Ilobak: Ainara Aroma, Ixone Aroma, Ana Barrena, Asier Arregi eta Iban Uriarte; bilobak: Izei Aroma eta Lur Aroma; neba-arrebak, lehengusu-lehengusinak eta beste senide guztiak. Zaintzaileak: Luisa eta Carlos.

AGURRA arratsaldeko 19:00etan izango da tanatorioan.

OHARRA: Hilbeila Durangaldeko Tanatorioan (Iurreta), ostiralean, hilak 23, 16:00etatik 19:00etara.

Botikak

BARIKUA, 23 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 24 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 25 · 09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 26 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 27 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 28 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 29 · 09:00-09:00

DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 4° / 10° ☁️

DOMEKA 🌧️ 8° / 15° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 5° / 9° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 4° / 10° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 6° / 12° ☁️

EGUENA 🌧️ 9° / 13° ☁️

Maker gunea elkarteko lekua eta interes amankomunak elkarbanatzen dituzten pertsonen "egiteko modua" da, ekinez ikasteko. Teknologiaren erabilpen praktikoarekin hasiko gara, 3D inprimagailuen erabilpenerako oinarriko formazioarekin.

Astean birritan, 6 saio. Astearte eta ostegunetan

Iraupena 120 min.

🕒 17:00

Hasiera MAR 5

Bukaera MAR 21



Maker gunea +14 urte



Izena emateko 946 812 726
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus



Pio Pio, eramateko janaria
Arripuko tortilla aukera ezberdinak
Kotxeak eta maskotak garbitzeko aukera
Baserriko ogia (Panarra, Otxandioko baserri ogia)

📍 BI-623, 48213 Izurtza
📍 BI-623, 48210 Otxandio

"Euskaraz eta euskal kulturaz maitemindu nintzen"

Andrea Garciak euskara irakasten du Montevideoko Haize Hegoa eta San Jose euskal etxeetan. Uruguakoak lotura berezia du euskaragaz, eta hainbat bider etorri da Euskal Herrira



Andrea Garcia Bella

Diasporako euskalduna

URUGUAI | 1978

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI
Andrea Garcia uruguaitarra Zornotzara etorri zen, urtarril amaieran. Urtebeterako etorri da Euskal Herrira, eta hainbat proiektu garatu gura du bertan, sortzaile legez. Jalgi Hadi Mundura elkarte birtualeko kide da eta *Hitzetik harago* liburuko ilustrazioak egin ditu, Txaro Diezegaz batera (@eguzkilore.ederra).

Zerk ekarri zaitu Zornotzara?

Lagunekin egoteko eta euskaraz bizitzeko helburuagaz etorri naiz. Bizitzan norabide aldaketa bat egin gura nuen. Andereñoa naiz Montevideon, 20 urte daramatzat haur es-

kolan lanean, baina ilustratzaile lanetan jarraitu gura dut nire bidea. Ilustrazioa eta euskara uztartuz, eta Uruguako kultura ere batuta, zeozer egin gura nuke. Aurten 300 urte betetzen dira Bruno Maurizio Zabala durangarrak Uruguai sortu zuenetik, eta Filtro ospitaleko gertakarien 30. urteurrena ere bada. Elkarlanean oinarrituriko proiekturen bat garatu gura nuke.

Non jaio zen zure lotura euskaragaz?

Lehenengo lotura euskal dantzeekin izan zen, Hego Haizea euskal etxeko Eusko Indarra taldean. Geroago, ahizparen bideari jarraituz, euskara ikasten hasi nintzen; bera

Euskaragaz nire lehenengo lotura euskal dantzeekin izan zen, Hego Haizea euskal etxeko Eusko Indarra taldean

izan nuen irakasle. 2008an, niri ere irakasle izateko aukera sortu zitzaidan, eta Etxepare Euskal Institutuak kudeaturiko Euskara Munduan programagaz hainbat herrialdeetako (Argentina, Brasil, Txile, Kolonia...) ikasleekin batera

eskolak hartu nituen, Internet bidez. Barnetegiak ere egin genituen, Argentinan, Txilen eta Uruguain. Azterketak Argentinan egin nituen. **Uruguain bizi den euskalduna zarela diozu.**

Halaxe sentitzen dut. Uruguain arbasoekin lotuta dago *vasco* berba. Baina Euskal Herrian euskaraz berba egiten duenari esaten zaio euskalduna. Azaldu ezin den maitasuna sentitzen dut. Euskaraz eta euskal kulturaz maitemindu nintzen. Aitaren partetik, aitita asturiarra nuen, eta birraitita galiziarra. Amaren jatorria italiarria da. Baina euskaratik hurbil sentitzen naiz, barru-barruan sentitzen dut. Bada, hemen euskaraz berba egiten ez didatenean mindu egiten naiz. *Non gogoan han zangoa* dio esaldiak; bada, hementxe nago.

Euskaratik oso hurbil sentitzen naiz, barru-barruan sentitzen dut. Eta hemen euskaraz berba egiten ez didatenean mindu egiten naiz

Euskara irakasten duzu Montevideon. Zerk motibatzen ditu zure ikasleak?

Gehienetan, arbasoengandik jaso duten euskaragazko maitasunak, baina euskara ezagutzeko maitasun hori handitu egiten da. Adibidez, nire ikasleetariko bat, Sonia Landaburu, bere birraititaren base-ria ikustera etorri zen. Oso hunkituta bueltatu zen, eta oso eskertuta. **Korrikan parte hartzera etorri zinen lehenengoz.**

Bai, eta aurten ere egongo naiz. Uruguaira irakastera joaniko AEK-ko irakasle bik gonbidatuta etorri nintzen, 2001ean. Izugarria iruditu zitzaidan, hunkigarria. Hura ikusita, asko harritzen nau gero jendeak euskara ez erabiltzeak. Gaztemundugaz bueltatu nintzen berriro, 2007an, eta Diasporaren Mundu kongresuan ere parte hartu nuen. Maizpideak lagunduta, 2014an eta 2021ean ere egon naiz hemen euskara praktikatzeko. Eta Mintzantzen ere parte hartu dut.

Lauhortza

Markel Onaindia Txabarri
Kazetaria



Idazkerak esaten duena

Ezkerrera etzanda idatziriko letra eta testuek iraganarekin lotura dutela, eta aldaketaren beldurra erakuts dezaketela; eskumarantz doazenek, ostera, etorkizuna amestu eta ausardia iradokitzen dutela. Horiek eta beste hainbat ondorio jaso zituen Maddi Ane Txoperena kazetariak Berria egunkarian, grafologiari buruzko erreportaje interesgarrian. Idazkerak asko esaten egin du izakeraz. Nire koadernora joan, eta lerro batzuk ezkerre-erantz etzanda topatu ditut, beste batzuk eskumarantz. Arraroena zera da: zenbait kasutan ez dudala neure letra ulertu ere egiten.

Mundua ere gero eta gutxiago ulertzen dut. Larrazkena joan zen, eta orain neguberrian edo batek daki non gauden. Arbolak, landareak, loreak eroturik. Animaliak ere aztoraturik sentitu ditut azkenaldian; pentsa, egun gutxiren barruan, txakur bik eta zaldi batek setiatu egin naute kalean.

Erantzunen peskizan ibili naiz: lagunarekin autoan berbetan, etxean liburuen artean, abesti berrien atzean. Pepe Mujicari irakurri diot ez dakiela bizitzak zentzurik baduen ala ez, baina artearekin, zientziarekin edo politikarekin ematen ez badiogu, merkatuak emango diola zentzua. Baita, zoriotsu izateko afektua behar dugula, eta afektua izateko denbora. Gero, irraturan, *eres tanto que no cabes, y no quiero que se acabe*, entzun diet René eta Silvia Pérez Cruz. Esango nuke ez naizela ni galderak egiten dabilen zalantzati bakarria.

Arkatza eskuan hartu eta eskumarantz idazten hasi naiz.

Gustoko

MARTXOAK 1-3

KALITATEA ETA JATORRIA

EROSI ZURE SARRERAK ONLINE
www.gustoko.eu

KOLABORATZAILE NAGUSIAK

EROSI ZURE SARRERAK ONLINE

ANTOLATZAILEA

EXPOSSI